

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pili Ikazuriaga Ugalde

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1934-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Beraien gurasoak geltoki plazan zuten Julian hotelean jaio zen 1934. urtean. Aita, Julian, Gautegiz-Arteagako Zendokiz auzokoa zen eta ama Errigoitikoa. Lau neba-arrebatan zaharrena izan zen. Bonbardaketan, hoteleko neskameekin ete bere ahizparekin batera alde egin zuten eta Ibarruriko Txakille baserrian egon ziren hamabosta inguruan. Handik Artegako eta Errigoitiko aitona-amonen etxera joan ziren etxea erre zieten-eta. Beraien gurasoek berriro zabaldu zuten taberna geltoki plazan, gaur egun zabalik dagoen "Julian" taberna zabaldu aurretik. 1963.ra arte taberna jatetxea ere bazen eta bertan lan egindakoa da. Umetan karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Bere ahizpa [Maria Antonia](#)arekin batera egin genion elkarrizketa. Argazkiko eskumakoa da Pili.

Zintak

GER-073

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-04-19
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Garbitokian ijitoekin olgetan

- **Erref:** GER-073/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:17:31. **Bukatu:** 00:18:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Iparragirre kalean zegoen labaderora (garbitokira) joaten ziren olgetan. Pilik dio ijitoekin batzen zirela bertan. Hainbat herritar batzen ziren bertan eta abesti batzuk ere ikasi zituzten.

2. Txokolatea osten eta jatetxean dantzan

- **Erref:** GER-073/017
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:19:27. **Bukatu:** 00:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Neba zaharrenak Piliri esaten zion etxean txokolatea lapurtzeko. Izan ere, neba joaten zenean beti harrapatzen zuten; Pili joanez gero, ostera, ez zuten harrapatzen. Jatetxeko mahai gainean ere dantzan aritzen zen.</p>

3. Dantza osteko diru batzea

- **Erref:** GER-073/019
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Pili etxean zuten jatetxeko mahai gainetan dantzan aritzen zen. Gero dirua batzen zuen. Astelehenetan jende asko batzen zen tabernan eta horixe zen egun aproposa, tren-geltoki ondoan baitzegoen taberna.

4. Karmeldarretan uniformeak

- **Erref:** GER-073/022
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Karmeldarren ikastetxea eskola publikoa baino dotoreagoa zen. Han, ordaintzen zutenek, uniformeak zuten; uniformeak zelakoa zen azaltzen dute. Beraiek taberna zuten eta orokorrean oso ondo bizi ziren.

5. Karmeldarretan moja izateko proposamena

- **Erref:** GER-073/023

- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Karmenaldarren ikastetxeko akordu onak ditu Pilik. Matematikak oso gustuko zituen eta mojak pozik egoten ziren beragaz. Behin moja batek aitarentzako karta bat eman zion. Mojatzat balio zuela esaten zuten gutunean eta moja sartzeko diru kopuru bat eman behar zuela. Aitak ez zuen horrelakorik onartu eta etxean laguntzen hasi zen beharrean.

6. Dotrina eta jaunartzea ikastetxearen arabera

- **Erref:** GER-073/025
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:28:26. **Bukatu:** 00:30:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

Pasealekuko eskolatik Andra Maria elizara joaten ziren dotrinara. Maiatzean, amaren eguna zenerako, lora eta belar bila joaten ziren Cuatrobancos aldera. Jaunartzea ere ez zuten leku berean egin: Pilik karmeldarretan eta Maria Antoniak Andra Marian. Maria Antoniak lehen jaunartzean txokolatea hartu zutela gogoratzen du.

7. Herriko argazkilariak

- **Erref:** GER-073/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:30:34. **Bukatu:** 00:31:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Gernika-Lumon "Komarida" eta "Foto Pepe" argazkilariak egon ziren. "Fotos Martin"en aita kartzelan egon zen gerra garaian, forala izan baitzen.

8. Julian, herriko taberna zaharrenetarikoa

- **Erref:** GER-073/038
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:44:18. **Bukatu:** 00:45:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Beraien taberna, Julian, Gernika-Lumoko taberna zaharrenetarikoa da. Ondoko lokalean jatetxea zuten. Jantokia zarratu ostean bokatak saltzen zituzten.

9. Txikiteorako ardoa eta lanera joan aurretik koñaka

- **Erref:** GER-073/039
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:45:11. **Bukatu:** 00:47:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Julian tabernako alabak dira eta bertan aritu izan ziren beharreen. Txikiteoan batez ere ardo beltza edaten zen, baina goizetan ardo zuria. Lanera joan aurretik koñaka anisagaz nahastuta ere hartzen zuen jendeak. Elkano anisa Gipuzkoatik ekartzen zuten. "Anís Elkano para lo amigos el más sano" zioen esaerak. Beste banatzaile batzuk ere aipatzen ditu: Zugazabetiia, Legarra, Gorostiaga, Goitisol... Ardoa Bilbotik ekartzen zien Arratek. Zahagietan egoten zen ardoa. Barran bost zahagi sartzen ziren

10. Musua ematea bekatu eta Frantziar konfesatu

- **Erref:** GER-073/046
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:53:36. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Mutil-lagunagaz ezer egitea bekatu zen. Pili ezkondu arretik, bekaturen bat-edo zuelakoan, musuren bat-edo antza, Frantziara egindako txango batean konfesatu zen. Bertan entzundakoak eta gero, ez zen inoiz gehiago konfesatu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com